

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Iritzia](#)

2011-11-29

ZUZENDARIARI

# 'Klis-klasikoak': zenbait zuzenketa

IBON EGAÑA, DONOSTIA.

Joan den larunbateko BERRIAK Klis-klasikoak bildumaren aurkezpenaren berri jaso zuen Kultura sailean. Bertan emandako hainbat informazio-atal ez ziren guztiz zuzenak eta horien gaineko ohar batzuk egin nahi ditut Galtzagorriko Klis-klasikoak batzordearen izenean:

1. *Pinotxoren abenturak* liburuaz zera zioen kazetariak: «Collodiren ipuina orain arte euskaratu gabe zegoen». Hori ez da hala, prentsaurrekoan esan genuen bezala, 1987an Agustina Pontestak itzuli baitzuen estreinakoz osorik Collodiren eleberria euskarara. Klis-klasikoak bilduman argitaratu duguna, izan ere, Pontestaren itzulpenaren gainean Koldo Bigurik eta Garazi Goikoetxeak egindako gaurkotzea da.
2. Mariasun Landaren *Txan fantasma* liburuaz ez dugu «egungo belaunaldientzat egokitu»; aitzitik, jatorrizko testua eta ilustrazioak mantendu ditugu berrargitalpenean, zuzenketa txiki batzuk gorabehera.
3. Ni Klis-klasikoak bildumaren arduraduna naizela esaten zen artikuluan, baina bildumaren ardura Galtzagorriko batzorde batena da; ni bertako kideetako bat baino ez naiz.
4. Ez da liburu sortaren asmoa «haur literaturaren modernizazioa», ez eta «euskal literaturaren tradizionalak diren lanak berriro interpretatzea» ere, ezpada euskal haur eta gazte literaturaren tradizioko ale aipagarriak berreskuratzea.



## Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Ebigurenek uste du independentzia lortzeko aukera jarri behar dela legedian
- 2 Urkulluk eta Raxoik ekin diote bilerari
- 3 Barcinak "Nafarroako hezkuntza politikan sartzeari" leporatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari
- 4 Euskal presoek "banakako bergizarteratzea" sustatuko du Espainiako Gobernuak
- 5 Iñigo Lamarca: "ETAko presoentzat espetxe legedi orokorra aplikatu behar da"



### Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
 Diputación Foral de Gipuzkoa